

# Bilbon, 2010eko apirilaren 30ean

Urrutia, Andres, euskaltzainburua  
Kintana, Xabier, idazkaria  
Arkotxa, Aurelia, euskaltzainburuordea  
Lizundia, Jose Luis, diruzaina  
Sagarna, Andoni, Iker sailburua  
Iñigo, Andres, Jagon sailburua  
Aleman, Sagrario  
Arejita, Adolfo  
Azkarate, Miren  
Charriton, Pierre  
Davant, Jean-Louis  
Haritschelhar, Jean  
Lakarra, Joseba  
Larre, Emile  
Oihartzabal, Beñat  
Oñederra, Miren Lourdes  
Peillen, Txomin  
Sarasola, Ibon  
Toledo, Ana  
Torrealdai, Joan Mari  
Uribarren, Patxi  
Videgain, Xarles eta  
Zalbide, Mikel.  
Pello Telleria idazkariordea, eta, zegozkien gaietan, Patxi Gale eta Mikel Gorrotxategi jaunak.

**Ezin etorriak eta ahalak:** Aurelia Arkotxak, ahala Lourdes Oñederrari; Bernardo Atxagak, ahala A. Urrutiari; Patxi Zabaletak, ahala A. Iñigori; Patxi Goenagak, ahala J. Haritschelharri.

Batzarra goizeko 10etan hasi da Bilbon, Euskaltzaindiaren Egoitzako batzargelan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Etorririko euskaltzainak agurtu ondoren, Euskaltzainburuak batzarrari hasiera eman dio.

**1. Aurreko akta onartzea.** Ez da oharrik jaso eta, beraz, aurreko batzarraren akta ontzat eman da.

**2. Hasi aurrekoak.**

**2.1. Goizeko ekitaldien programa.** Euskaltzainburuak azaldu du ohiko Batzarra goizez izanen dela, 11:45 arte. Ondoren, 12etan, *Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren* lehen bi tomoak aurkeztuko dira jendaurreko ekitaldian. Etorritakoei obra hori formatu

informatikoan emanen zaie. Liburuen pisu handia dela eta, posta gastuak gutxitzeko, horiek paperean eskatzen dituzten euskaltzainei, zeini bere ordekaritzara, igorriko zaizkie.

**3. Exonomastika. «Europako geografia fisikoa. Oronimia: mendikateak, mendiguneak» onartzea.** J. L. Lizundiak azaldu du joan den hilean mendikate eta mendigune izenekin aurkeztu zen proposamenaren egoera. Oharririk ez da etorri eta, besterik gabe, ontzat eman da.

**4. ECO –Euskal Corpus Onomastikoa– egitasmoari buruzko azalpena.** Andres Iñigok egin du aurkezpena eta, pantailan erakutsiriko eskemen bitartez, egitasmo horren historia eta orain arteko bilakabidea zertan den argitu du. Ondoren, hitza Patxi Galeri eman dio, eta beronek azalpenarekin segitu du.

Izan ere, bi iturri nagusi erabili dira: idatzizkoak (bibliografikoak, kartografikoak, etab.) eta informatzaileak (etnografikoak). Kasu guztietan prozedura zehatza egin da, bai idatzizko eta bai ahozko erak behar bezala identifikatzeko (informatzaileen izen-deiturak, bilduriko informazioaren kokapena, forma idatziak arautzeko irizpideak, etab.). Hortik datuak metatzeko sistemetara pasatu da, hots, datutegi eta aplikazioetara, bai administrazioan lan egiteko eta bai Euskaltzaindiari kontsultak egiteko modua eguneratzeko ere.

Jendearen erabilera eta eskariagatik, garrantzi berezia dute, noski, pertsonaizenen, deituren eta lekuen morfologia eta grafia zuzenak, eta horretarako erabili diren irizpideen azalpenak ere bai.

P. Galek kontsultarako bideak zabaltzea proposatu du, berori batzordekide eta batzordeen lanekin osatuz joan dadin, euskaltzainen eskuko eta webgunea publiko bilaka dadin. Jada Onomastika batzordearen tresna da, irizpidegintza osatu eta erabakien berme finkoa gerta dadin. Horri esker datutegia etengabe eguneratu eta emendatu ahalko da. Lan makroetatik ikerketa mikroetara iragateko asmoa dago, herriz herri egindako ikerketa partikularrekin aberasteko. Jada aurkibide nagusia prestatzen hasiak dira, hor deiturak, pertsona- eta leku-izenak, eta era dokumentalak, beren arautze-irizpideekin biltzeko.

Horri buruz, J. L. Lizundiak esan duenez, Euskaltzaindiak hedabideetatik eskari konkretuak jaso ditu: hondartzen euskal izenak, adibidez, Euskal Telebistatik eskatuak, edo mendateen izenak, Euskal Herriko Itzulikoak, kasu, inoiz estatuko programetan gaizki aipatuak.

J. Lakarrak zorionak eman dizkio P. Galeri eta galdetu ea datutegi horretan *Onomastikon Vasconiae*-koak ere sartuak ote diren, bai eta lekukotasun zaharrak

aurkitzeko zein bide erabili behar den ere. P. Galek erantzun dio lan mikroak oraindik ez daudela sarturik, salbuespen gisa baizik (A. Iñigoren eta P. Salaberri-ren doktorego tesietako datuak, adibidez). Halere, iturri eta kartulario zaharretako testuak kontsulta daitezke, eskatuz gero.

A. Arkotxak kartografia fisikoa ere nahi luke, tokia zehazki kokatzeko. Okerrak zuzentzeko prozedura zein den azaldu du P. Galek. Arlo horretan, zuzenketak egiteko eta lekuak kokatzeko, A. Sagarnak Google etxearekin eginiko gestioak azaldu ditu. J. L. Lizundiak ere kontsiderazio batzuk egin ditu, zenbait lan desiragarriren finantziaketaz. Lan mikroen txanda pixkanaka badatorrela aipatu du A. Iñigok. P. Galek ikertzaileekin kolaboratzeko gogoia erakutsi du.

**5. Kudeatzaile berriaz.** Euskaltzainburuak azaldu duenez, Euskaltzaindikoko kudeatzaile posturako probetan azken aldian geldituriko lau hautagaiekin apirilaren 21ean bilerak eta elkarrizketak egin dira, eta horien ondoren, lauetatik bi aukeratu dira. Epaimahaiak beste elkarrizketa batera deituko ditu bi horiek maiatzaren 4an. Kudeagintzaren ikuspegitik biak ongi hornituak direla azaldu du. Horrez gainera, J. L. Lizundiak hautagaiei puntuazioa ematearen garrantzia azpimarratu du, behin bat hautatu ondoren, horrek postuari uko eginez gero berorren hurrengoagana jo ahal izateko.

## 6. Eskuartekoak

**6.1. Henrike Knörr-en heriotzaren bigarren urteurrena.** Euskaltzainburuak gogorarazi du joan den apirilaren 30ean Henrike Knörr Borrás euskaltzain zendua-ren bigarren urteurrena izan zela.

**6.2. Euskaltzaindia R.A.E.ra bisitan.** Espainieraren Errege-Akademiaren gonbitari erantzunez, apirilaren 12an A. Urrutia Euskaltzainburua eta A. Sagarna Iker Sailburua Madrilera joan ziren, R.A.E.ren egoitzara. Bertan, era berean gonbidatuak ziren katalan eta galiziar ordezkariekin bilera egin eta Espainiako Hizkuntza Akademien arteko elkarlanerako hitzarmenaren zirriborroa prestatu zuten, geroago, Akademia bakoitzaren zuzendaritzak ikusi eta berretsi ondoren, sinatzekoa. Euskaltzaindikoko Zuzendaritzak hitzarmen hori apirilaren 28ko bilkuran onartu zuen. *Real Academia Española*-rako bisitaz baliatuak, bilera tekniko bat egin zuten, bertan dihardutenek hizkuntza arloan lan egiteko darabiltzaten metodologia eta prozedurak ikusteko. A. Sagarnak horien xehetasunak azaldu ditu.

**6.3. Nafar Gobernuarekiko hitzarmena.** Herenegun, apirilaren 28an, Iruñeko Diputazioaren Jauregian Nafarroako Gobernuarekiko aurtengo hitzarmena sinatu zen.

**6.4. Jaurlaritzak Euskaltzaindiari Batzorderako kide bat eskatu dio.** Eusko Jaurlaritzak Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Aholku Batzorderako kide bat proposatzea eskatu dio Euskaltzaindiari. Eskari horri erantzuteko, Zuzendaritzak orain arteko ordezkari bera izendatzea erabaki du apirilaren 16an, hots, J. L. Lizundia Askondo jauna. Berretsi egin da izendapena.

**6.5. Kultura Ministerioaren Sari Nazionalak.** Espainiako Gobernuaren Kultura Ministerioak bere Sari Nazionalen Epaimahaiak osatzeko, 2010eko martxoaren 24ko gutunean Euskaltzaindiari bidaliriko epaimahaikide-eskariari erantzunez, Literatura Ikerketa batzordearen proposamena aztertu ondoren, pertsona hauek proposatzea erabaki zuen Zuzendaritzak aurtengo apirilaren 16an:

*Narratiba:* Felipe Juaristi

*Poesia:* Lourdes Otaegi

*Antzerkia:* Arantxa Urretabizkaia

*Saiakera:* Sebas Gartzia Trujillo

*Haur eta Gazte Literatura:* Manu Lopez

Zuzendaritzak, bestalde, pertsona hauek proposatu ditu sari hauetarako:

*Letras Españolas:* Joseba Lakarra

*Itzulpena:* Xabier Kintana

Proposaturiko izen horiek guztiak onartu dira.

**6.6. Premio Nacional de Periodismo Cultural.** Era berean, Espainiako Gobernuaren Kultura Ministerioak eskabidea egin dio Euskaltzaindiari aurtengo Premio Nacional de Periodismo Cultural-en epaimahairako ordezkaria izenda dezan. Zuzendaritzaren proposamenez, Luis Alberto Aranberri «Amatiño» kazetari, idazle eta euskaltzain urgazlea izendatzea erabaki da.

**6.7. Eusko Ikaskuntza-Euskadiko Kutxa 2010 saria.** Erakunde bi hauek urtero antolatzen duten sarirako proposamenak egiteko azken eguna dela gogoratu du A. Urrutiak. Zuzendaritzak, bere aldetik, ez du kandidaturik aurkeztu. Beste euskaltzainengandik proposamenik izan ez denez gero, Euskaltzaindiak ez du inor aurkeztuko sari horretara.

**6.8. Colonos Kultura Elkartearen eta Udineko Unibertsitatearen literatura jardunaldia.** Italiatik gonbita jaso da, Colonos Kultura Elkartek eta Udineko Unibertsitateak hizkuntza minorizatuen literaturaz aurtengo maiatzaren 26an antolatuko duten jardunaldira joateko. Zenbaitzuek hara joateko interesa lukete, baina gelditzen den hilabeteko tarteari laburregi iritzi diote partaidetza behar beza-

la antolatzeko. Halere, norbaitek joateko asmorik balu, Euskaltzaindiari lehenbait-lehen jakinarazi beharra adierazi da.

## 7. Azken ordukoak

**7.1. Adrian Zelaiaren omenaldirako gonbita.** Sestaoko Udalak eta Euskal-erriaren Adiskideen Elkarteak Euskaltzaindira gonbita bidali dute, aurtengo maiatzaren 8an, goizeko 11etan Adrian Zelaia jaunaren omenez Sestaoko musika Eskolako Ekitaldi Aretoan antolatu duten ekitaldira joateko. Joatea berresteko, interesatuek gonbitean bertan ageri den helbidera jo dezakete.

**7.2. Txomin Peillenek Manuel Lekuona Saria jasoko.** Txomin Peillen euskaltzainak Eusko Ikaskuntzak 2009an antolaturiko Manuel Lekuona saria jasoko du maiatzaren 22an, goizeko 10etan, Baionako Herriko Etxean izanen den ekitaldian. Euskaltzainburuak zorionak eman dizkio eta euskaltzain guztiak ospakizun horretara joatera gonbidatu ditu.

**7.3. Hurrengo batzarra Aramaion.** Euskaltzaindiaren hurrengo batzarra maiatzaren 28an, Aramaion, goizeko 10:00etan izango dela gogoratu du A. Urrutiak. Egun berean, arratsaldeko 6:00etan, Patxi Uribarrenen sarrera-hitzaldia egingo da.

## 7.4. Euskaltzaindiak banaturiko liburuak.

Euskaltzainen artean ondoko obrak banatu dira:

Gratien Adema «Zaldubi»ren *Kantikak*, eta *Prediku zenbait*, *Hazparren eginak* (1854-1860) Henri Duhauk prestaturiko edizioetan.

*Jesü Kristen imitazioea* (1757), Martin Maister-en itzulpena, Jean-Louis Davantek paratua. *Birjinia, edo donceil christaba* obraren euskal testua, Jose Antonio Mujikak moldiztegirako prestatua.

*Plazaberri* (6. zenbakia)

*Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren* I. eta II. liburukien CDak.

Hamabiak laurden gutxiagotan amaitu da bilera.

Andres Urrutia,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana,  
idazkaria

# Ageriko bilkura

Bilbon, 2010eko apirilaren 30ean

Gaur, apirilak 30, egin da *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*a-ren I. eta II. liburukien aurkezpena, Euskadiko Kutxarekin batera, Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, eguerdiko 12:00etan hasita.

Bildu direnak:

- Euskaltzain osoak: Andres Urrutia, euskaltzainburua; Aurelia Arkotxa, buruordea; Xabier Kintana, idazkaria; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Andoni Sagarna, Iker sailburua; Andres Iñigo, Jagon sailburua; Jean Haritschelhar, euskaltzainburu ohia; Sagrario Aleman, Adolfo Arejita, Miren Azkarate, Jean-Louis Davant, Joseba Andoni Lakarra, Emile Larre, Miren Lourdes Oñederra, Beñat Oihartzabal, Txomin Peillen, Ibon Sarasola, Ana Toledo, Joan Mari Torrealdai, Patxi Uribarren, Xarles Videgain, Piarres Xarritton eta Mikel Zalbide. Ezin etorria adierazi dutenak: Patxi Goenaga, Pello Salaburu, Patxi Salaberri eta Patxi Zabaleta.
- Ohorezko euskaltzainak: Koldo Artola, Ana Maria Etxaide, Jose Mari Iriondo eta Karmele Rotaetxe. Ezin etorria adierazi du Xabier Gereñok.
- Euskaltzain urgazleak: Jon Aurre, Ricardo Badiola, Jose Luis Erdozia, Xabier Erdozia, Jose Mari Etxebarria, Patxi Galé, Sebastian Gartzia Trujillo, Pruden Gartzia, Juan Luis Goikoetxea, Mikel Gorrotxategi, Juan Antonio Letamendia, Xabier Mendiguren, Abel Muniategi, Manuel Ruiz Urrestarazu eta Pello Telleria. Ezin etorria adierazi dutenak: Jose Ramon Etxebarria eta Elixabete Perez Gaztelu.
- Batzordekideak eta egitasmoetakoak: Aritz Abaroa, Kasildo Alkorta, Gorka Intxaurbe, Amaia Jauregizar, Elena Martinez de Madina, Manu Ormazabal, Erramun Osa.
- Euskaltzaindikoko langileak: Lutxi Alberdi, Iñaki Kareaga eta Amaia Okariz.

Xabier Kintana idazkariak egin du ekitaldiaren sarrera eta hitza eman die parte hartu dutenei.

### **Andres Urrutia euskaltzainburuaren ongietorria**

Bertaratu direnei ongietorria eman ondoren, bere poza adierazi du Euskaltzainburuak, gaur Atlasaren lehen emaitzak kalean ikustean. Euskaltzaindiak Atlasa egitea 1983an onartu zuenetik gaur arte bide luzea egin da. Euskararen erabileraren emaitza hain aberatsa eskaintzen duen fruitua gizarteratu egin du Euskaltzaindiak, euskal gizartearen eta ikertzaileen eskuetan jarriz.

Atlasaren lan akademikoan parte hartu duten pertsonak gogorarazi ditu Euskaltzainburuak. Batetik, zuzendariak: Jean Haritschelhar, Beñat Oihartzabal, Andolin Eguzkitza eta Adolfo Arejita. Bestetik, arduradunak: Gotzon Aurrekoetxea eta Xarles Videgain. Azkenik, gainerako kideak: Isaak Atutxa, Iñaki Camino, Ana Maria Etxaide, Jose Maria Etxebarria, Izaskun Etxebeste, Jon Idigoras, Aitor Iglesias, Gorka Intxaurre, Amaia Jauregizar, Juan Antonio Letamendia, Juantxu Rekalde eta Koro Seguroa.

Euskaltzaindiari, erakunde bezala irauteko eta lan akademikoa egin ahal izateko diru-babesa ematen dioten Administrazio ezberdinei eskerrak eman dizkie Euskaltzainburuak: Eusko Jaurlaritza, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundia; Nafarroako Gobernuak; Espainiako Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa; Euskararen Erakunde Publikoa eta, une batean edo bestean Atlasa egitasmoa lagundu duten Akitaniako Kontseilua, Europar Batasuneko Hedadura Gutxiko Hizkuntzen Batzordea, Frantziako Irakaskintza eta Ikerkuntza Ministerioa, Europako Harremantako Ministerioa, eta Baionako Euskal Ikerketa taldea (CNRS, Michel de Montaigne – Bordele 3ko Unibertsitatea eta Paueko eta Aturrialdeko Unibertsitatea – UPPS).

Atlasaren I. eta II. liburukien argitalpena finantzatu duen Euskadiko Kutxarentzat izan dira hurrengo esker onezko hitzak, bereziki pertsona hauek izan duten parte hartzea aipatuz: Txomin Garcia, Julio Gallastegi, Juan Cid eta Iñaki Gorroño jaunak.

Atlasa argitaratu ahal izateko, egin duten lanagatik aipatu ditu, halaber, Euskaltzaindiko hauek: Jose Antonio Arana Martija, Jose Luis Lizundia eta, bereziki, iazko azaroan hil zen Juan Jose Zearreta kudeatzailea.

Azkenik, Atlasa egin ahal izateko beren ahotsa eskaini duten informatzaileak izan ditu gogoan Euskaltzainburuak, adieraziz beste ekitaldi batean eskertuko diela Euskaltzaindiak beren hizkeren lekukotasuna.

### **Adolfo Arejita, *Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren* zuzendaria**

Egitasmoaren Zuzendariak, lanari ekin zitzaionetik liburukiak argitaratu diren arte egin pauso nagusiak aipatu ditu labor-labor.

Guztira 2.877 kontzepturen galderak jasotzen dituen galdesorta prestatu zen: lexikoari buruzkoak gehien-gehienak, 2162; morfologiaren gainekoak, izen eta aditzarenak ere asko: 596; sintaxiaren gainekoak, 62, eta azkenik fonetikazkoak, 37. Pertsona hauek jardun zuten inkestagintzan: Isaak Atutxa, Gotzon Aurrekoetxea, Ana Maria Etxaide, Jose Mari Etxebarria, Izaskun Etxebeste, Koro Segurola eta Xarles Videgain. Euskal Herriko 145 herritan egin ziren inkestak: Bizkaian 36, Araban 1, Gipuzkoan 36, Nafarroan 27, Lapurdin 15, Nafarroa Beherean 18 eta Zuberoan 11.

Inkestaren emaitza guztiak grabazioz jaso ziren. Horren guztiaren emaitza da, Euskaltzaindiak bere artxiboan gaur gorderik duen 4000 ordu inguruko altxorra. Euskarri digitalean eta berme onez gorderik dago ahotsezko altxor hori.

Jasotako erantzunak kuadernoetan bildu ziren, eta ondoren informazio hori guztia ordenagailuan sartzeari ekin zitzaion. Azkenik, mapak elaboratzen eta paperezko edizioa prestatzen jardun da.

Adolfo Arejitak, egitasmoan parte hartu duten guztiei eskerrak eman ondoren, *Atlasa* egiteko bildu den hizkuntza-corpus bikainaren garrantzia azpimarratu du, Euskaltzaindiak beste zenbait xede akademikotarako erabil dezakeena.

### **Beñat Oihartzabal, *Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren* I. liburukiaren arduradun akademikoa**

*Atlasaren* I. liburukiari buruzko oinarritzko azalpenak eman ditu Beñat Oihartzabalek. Erantzunek, mapek, oharrek eta indizeek osatzen dute liburuaren edukia. Gai hauei buruzko edukia azaltzen da I. liburukian, 268 galderatan sakabanatua: intsektuak, arrainak, narrastiak, txoriak, piztiak, zerua eta eguzkia, eguraldia, elurra eta hotza.

Argitalpena zein modutan eskaintzen den azaldu du: paperean, CDan eta webgunean. Ondoren, argitalpenaren edukiaz eta erabileraz hobeto jabetzeko adibideak erakutsi ditu ordenagailu bidez: herrikako bilaketa nola egin, erantzunen zerrenda, erantzuna nork nola emana izan den eta iruzkinak, galderakako bilaketa,



galdera jakin baten erantzunak herrika, herri bateko erantzunen barnean, nork bere mapak nola egin, eta abar.

Eskerrak eman dizkie egitasmoaren bideratzaileei, inkestagile eta transkribatzaileei, lehen liburukiko datuen informatizatzaileei, lehen liburukiko mapen moldatzaileei, informatika lanen egileei eta, azkenik, Andolin Eguzkitza zenari.

### **Txomin Garcia, Euskadiko Kutzaren burua**

Euskaltzaindiaren lankide izatea Euskadiko Kutzarentzat ohore handia dela esanez hasi da hizketan Txomin Garcia jauna, eta ondoren ekitaldira bertaratu direnak agurtu ditu. Euskaltzaindiaren eta Euskadiko Kutzaren arteko elkarlana azpimarratu du, Atlasaren lehen bi liburukiak argitaratu ahal izateko alde bakoitzak bere arloari zegozkion eginkizunak bete dituelako. Euskadiko Kutzak elkarlanean daramatzen 50 urteak gogorarazi ditu, eta hasieratik bertatik euskal kulturarekin eta euskararekin izan duen konpromisoa ere bai. Gaur aurkeztu diren bi liburuentzako Euskadiko Kutzak eman duen babesaren borondate horren froga da. Euskaltzaindiarekiko lankidetzak etorkizunean ere jarraipena izan dezan opatuz amaitu du hitzaldia Txomin Garcia jaunak.

Ekitaldia eguerdiko 13:00ean bukatu da.

Andres Urrutia,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana,  
idazkaria